



ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko Alkate naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengo agintzea erabaki dut:

1783. zenbakia duen Alkate Dekretuaren zuzenketa: LURRALDE ANTOLAKETAKO AOT (A1) aldi baterako programa LANBIDE bitartez betetzeko BEHIN BETIKO onartu eta baztertuen zerrenda eta merezimenduak onartzea (2025ALK00019).

Udal teknikariaren txostenak honela dio hitzez hitz:

"Udaleko Giza Baliabide eta Antolaketako teknikaria naizen honek honako txostena ematen dut:

Espediente zk.:..... 2025ALK00019

Espedientearen helbidea: OÑATI.

Gaia:..... 1783. zenbakia duen Alkate Dekretuaren zuzenketa: LURRALDE ANTOLAKETAKO AOT (A1) aldi baterako programa LANBIDE bitartez betetzeko BEHIN BETIKO onartu eta baztertuen zerrenda eta merezimenduak onartzea

Interesduna:..... Oñatiko Udala

Gertakariak:

Oñatiko Udaleko 2025eko azaroaren 17an, 1783. zenbakia duen Alkate Dekretuaren bitartez onartu egin da Lurralde Antolaketako AOT (A1) lanpostua aldi baterako programa Lanbide bitartez betetzeko behin betiko onartu eta baztertuen zerrenda eta merezimenduen behin betiko balorazioa.

Zentzu horretan, egiaztatu da Xabat Beloki Segurola hautagaiak bere curriculum vitae-a aurkeztu zuela Lanbideren bitartez azaroaren 3an (eskaera zk. 62025012516), hau da, epea irekita zegoen unean, baina ez dela hori aintzat hartu.

Hortaz, ikusita eskaera behar bezala aurkeztu egin dela, bere hautagaitza onartu behar da. Hori kontuan izanik, hurrengo da onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eguneratua:

Onartuen zerrenda:

Izen-abizenak	C2. Hizkuntza eskakizuna
Karlos Lamsfus Irigoyen	BAI
Inge Goenaga Egaña	BAI
Amaia Romero Fernandez	BAI
Ane Larrañaga Goenaga	BAI
Maite Izaguirre Aldamiz-Etxebarria	BAI
Xabat Beloki Segurola	BAI



OÑATI
dabilen herria

Baztertuen zerrenda:

Izen-abizenak	Arrazoa
Katia Madina Letamendi	1

(1) Eskatutako titulazioa ez betetzeagatik.

Merezimenduen behin betiko zerrenda:

	Lan-esperientzia (gehienez 10 puntu)	Titulu akademiko ofizialak (gehienez 5 puntu)	Ikastaroak (gehienez 5 puntu)	GUZTIRA
Xabat Beloki Segurola	2,76	2	5	9,76
Amaia Romero Fernandez	3,24	0	5	8,24
Inge Goenaga Egaña	0,48	3	0	3,48
Maite Izaguirre Aldamiz-Etxebarria	0	2	0	2
Karlos Lamsfus Irigoyen	0	0	0	0
Ane Larrañaga Goenaga	0	0	0	0

Proposamena: 1783. zenbakia duen Alkate Dekretua zuzentzea eta ANTOLAKETAKO AOT (A1) aldi baterako programa LANBIDE bitartez betetzeko BEHIN BETIKO onartu eta baztertuen zerrendan aldaketa jasotzea."

Goian aipaturikoa ikusirik, nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko alkate naizenez, legeak ematen dizkidan eskumenak erabilia, erabaki dut:

Lehenengoa.- 1783. zenbakia duen Alkate Dekretua zuzentzea eta Lurralde Antolaketako AOT (A1) aldi baterako programa betetzeko behin betiko onartu eta baztertuen zerrendan eta merezimenduetan aurrerago aipatutako aldaketak jasotzea.

Bigarrena.- Kontratazioari hasiera ematea.

Hirugarrena.- Erabakia Oñatiko Udaleko webgunean argitaratzea.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.

Oñatin, 2025eko azaroaren 19an


OÑATIKO UDALA
Alkatea
Izaro Elorza Arregui